


U

rtemuga berri bat daukagu ospatzeko, 1949. urtea nahiko urrun dago. Edo beharbada ez? Txangolari Elkarateak gaur egunera arte mantendu du bere sortzaileen abentura izpiritua eta esplorazioarenganako zaletasuna eta gure kultura ezagutu eta hedatzeko grina. Gaur, garai hartan bezala, hainbat eta hainbat diziplinen (herri-lasterketak, abesbatzak, mikologia, natur zientziak, mendia eta kultura) zaletuak biltzen dira Elkaratearen inguruan, elkarrengandik ikasiz.

Lehenengo hamarkadetan zehar Txangolari Elkarateak izugarriko ondarea utzi zuen kulturari eta kirolari dagokionez, baina horri buruz nik baino ezagutza handiagoak dituzten pertsonak hiltz egingo dute. Nik azken hamarkadari buruz hiltz egitea nahiago dut, zuzenean bizi izan dudalako. 90. hamarkada bukaerako gerlaera garrantzitsuetako bat 1998ko Urrezko Zeledoa lortzea izan zen. Elkaratearen berrogeita hamargaren urteurena zela eta emandako saria izan zen, eta horren bidez aintzat hartzen ziren Txangolari Elkarateak Gasteizen eta Araban kultura eta kirola sustatzeko egindako ekarpenak. Ildo honetatik jarraituz, 2006an Landazuri Saria eman zioten taldekako modalitatean.



Kirola eta naturaren zabalkundeari dagokionez, azken urteetan Hiru Haundiak mendiz mendiko iraupen handiko marxa abian jarri dugu eta gure eremuko frogarik entzutetsuenetakoa bilakatu da. Ezin ahaztu Gasteiz-Estibaliz lasterketa, korrikalarien egutegian klasiko bat dagoeneko, ezta Gasteizko Hamar Mendiak marxa, paisaia aberatsak ikusteko urrun joan beharrik ez dagoenaren adibide.

Tamalez, San Vitor Aterpetxearekin genuen harremana galdu dugu, garai batean gure elkaratearen ikurra izan zena. Bertako Egunkaria eta Kepa eta Joseba Grajalesek egindako maketa ederra gordetzen ditugu hala ere. Ordez, azken urteetan elkaratearen inaugurazio irteeraren errepikatzea berreskuratu dugu, hau da, 1949ko urriaren 12an Kantabria eta Toloñoko Mendilerroko San León mendira egindakoa.

Beste gertakari aipagarri bat Ganallon gurutze berri bat jartzea izan da. Gurutzea Iñaki Elejaldek egin zuen Andres, bere anaiaren laguntzarekin. Biak Aperregin bizi dira, Ganalloko magalean. Iñakik, burdinaren artisau aparta denak, jakin gabe, Juanito Salazar artisau bikainaren lekukoa hartu du, Araba osoan zehar barreiatutako hamaika postontzi eta gurutze egin zituenak, Zaldiarango Gurutzea, Gazteluko Gurutzea, edo Mirutegikoa adibidez. Behin, Iñaki Txangolari Elkartera hurbildu zen aurreko gurutzearen egoera tamalgaria azaltzeko eta gurutze berri bat egiteko eskaini zuen bere burua. Badaiako Sierra Bravako Komunitatearen eta Aperregiko administrazioaren laguntzaz, balio artistiko handia duen gurutze hori leku estrategiko batean kokatu da, mendizaleen gozamenarako.

Aipatzekoa da ere Manuel Iradier Txangolari Elkaratearen Urrezko dominaren sorrera. Urtero banatzen zaie Elkaratean buru-belarri eta arduraz ibili diren kideei. Lagunartean ematen ditugun sariak dira, argazki-kameratifik eta hedabideetatik urrun. Horrela, Ana Mari Lacalle-ri bere merezimendua aitortu nahi izan zaio, elkarateak Behobia lasterketan izan duen parte hartzearen funtsa izateagatik, urte askotan zehar lokalean jendaurrean aritzeagatik eta gure kirol frogaren gehien antolatuntzan gogotsu ekiteagatik. Beste horrenbeste Kepa Grajalesi dagokionez: lokalaren mantentzearen arduradun nagusia, ereduak izaera dauka eta gutako inork baino gehiago pairatu behar izan du azkenaldian gure lokalean ageritu den hezetasuna, beste arazoaren artean. Beste sari bat Javi López izan da, gure web orriaren, fitxategien eta egoera finantzarioaren muina. Luis Mari Iriarte ere sari du, natur zientzien eta bereziki mikologiaren zale handia eta Plaza Berriko Mikologia Erakusketa eta Lehiaketa ospetsuen antolatzailea. Azkenik Isidro Saenz de Urtururi ere eman diogu saria, elkaratea sortu zutenen izpiritua polifazetikoa partekatzen du, espeleologia, etnografia, arkeologia bezalako arloak ezagutzen baititu eta egutegian zehaztuta dauden txango kultural arrakastatsuek antolatzen ditu gainera.

Pertsona hauei esker eta etorkizunean domina lortuko dutenei esker daukagu gaur gure urteurena ospatzeko parada. Ez da ez, ospatzeko dugun azkena izango...



Llegamos a una nueva efemérides. Queda bastante lejos el año 1949. ¿O quizás no tanto?. La Excursionista, en el presente, aún conserva parte de aquel espíritu de aventura, exploración y de ansia por conocer y divulgar nuestra cultura que tuvieron sus fundadores. Hoy, como entonces, personas amantes de muy variadas disciplinas, como las carreras populares, el canto coral, la micología, las ciencias naturales, la montaña, la cultura en general, se aglutinan entorno a nuestra sociedad, enriqueciéndose mutuamente.

Reconociendo el tremendo legado cultural y deportivo que la Excursionista tuvo en sus primeras décadas, y de la que otras personas, más preparadas que yo, darán cumplida cuenta, quiero centrarme en esta última década, por ser la que he vivido directamente. Uno de los primeros hitos de finales de los 90, fue la concesión del Celedon de Oro 1998, en reconocimiento a los méritos obtenidos por la Excursionista en el fomento de la cultura y el deporte en Vitoria y en Alava y con ocasión de alcanzar el cincuentenario. En esa línea, en el año 2006, se concede a la Excursionista, la Distinción Landazuri en su modalidad colectiva.

En nuestra vertiente de divulgación del deporte y la naturaleza hemos vivido en los últimos años, el despegue de la marcha de ultra fondo por montaña Los Tres Grandes- Hiru Haundiak, hasta convertirse en una de las pruebas más prestigiosas de nuestro ámbito. No podemos olvidarnos de la carrera Vitoria-Estibaliz, convertida en una clásica del calendario korrikalari, y de la marcha de los Diez Montes de Vitoria-Gasteizko Mendiak, ejemplo de que no hace falta irse muy lejos para disfrutar de una gran riqueza paisajística.

Hemos perdido, a nuestro pesar, la relación con el Refugio de San Vitor, antaño emblema de la Sociedad. Conservamos su Diario y la espléndida maqueta realizada por Kepa y Joseba Grajales. En su lugar hemos recuperado en los últimos años la repelición de la salida inaugural del 12 de Octubre de 1949 al monte San León en la Sierra de Cantabria y Toloño.

Otro de los acontecimientos más interesantes ha sido la colocación de la nueva Cruz en Ganallo. Construida por Iñaki Elejalde con la colaboración de su hermano Andres, vecinos de la localidad de Aperregi, situada en las faldas de Ganallo. Iñaki, excelente artesano del hierro, vino, sin saberlo, a tomar el testigo de Juanito Salazar, otro magnífico artesano, creador de infinidad de buzones y cruces repartidos a lo largo de Alava, entre ellas la Cruz de Zaldiarán, la Cruz del Castillo o la de Mirutegui. Iñaki, se acercó un día a la Excursionista para explicar el estado de ruina en la que se encontraba la cruz anterior, ofreciéndose a realizar una nueva. Con la colaboración de la Comunidad de la Sierra Brava de Badaia y de la Junta Administrativa de Aperregi, la esbelta Cruz, de gran valor artístico, y situada en lugar estratégico, ha quedado para el disfrute de la gente de la montaña.

También es destacable, la creación de la Insignia de Oro de la Sociedad Excursionista Manuel Iradier. Se otorga de forma anual, a los socios y socias con una trayectoria ejemplar de dedicación y entrega a la Sociedad. Son premios que celebramos de forma íntima y alejados de los flaxes y los medios de comunicación. Así se han querido reconocer los méritos de Ana Mari Lacalle, alma mater en nuestra participación en la Behobia, durante muchos años atendiendo en primera línea en el local y participando activamente en la organización de la mayoría de nuestras pruebas deportivas. Y que decir de Kepa Grajales, responsable ejecutivo en el mantenimiento del local, persona ejemplar que sufre como ninguno de nosotros, las recientes humedades y demás problemas añadidos que padece nuestro local. O Javi Lopez, alma de nuestra página web, de todos nuestros ficheros y de nuestros estados financieros. También Luis Mari Iriarte, amante de las Ciencias Naturales y en especial de la Micología, organizador de las famosas Exposiciones y Concursos Micológicos que se celebraban en la Plaza Nueva. La última Insignia de Oro ha sido para Isidro Saenz de Urturi, que encarna como pocos el espíritu polifacético de los fundadores, abarcando ramas del conocimiento tan diversas como la espeleología, la etnografía, la arqueología, y organizador, con gran éxito de asistencia, de las salidas culturales del calendario.

Gracias a estas personas y a otras muchas, que en años sucesivos optarán al merecido reconocimiento, hoy podemos celebrar esta efemérides. Y las que nos quedan por celebrar...

Fernando Casi

